

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingoak eta Ertzaintzak informazioa trukatzeko eta batera gauzatzen diren operazioetarako protokolo bat izango dute

Nafarroako Gobernuak bi erakundeen arteko koordinazioa handitzeko hitzarmen bat sinatzea onetsi du

Miércoles, 18 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, Foruzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzaren protokolo bat sinatzea onartu du, informazioa eta esperientziak trukatzeko eta batera gauzatu beharreko operazioak garatzeko.

Hitzarmenaren helburua lankidetzaren formalizatzea eta arautzea da, orain arteko harremanak finkatu eta programa, plan, estrategia, material eta teknologietan elkarrekiko laguntza handitzea.

Bi polizia-erakundeek trukatu izan dute informazioa eta operazioak batera egin izan dituzte. Operazioen artean, aipatzekoa da "kaiku" operazioa, izan ere, Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko mugako herrietan jarduten zen gaizkile talde bat atxilotzea ahalbidetu dute. Neguko bideen arloan izaten duten lankidetzaren ere ohikoa da, herritarren segurtasunari dagokionez Elizondo, Altsasu eta Lizarrako komisaldegiekin batez ere, eta genero-indarkeriaren kasuetan.

Jarduera-eremuak eta kasuan kasuko solaskideak

Protokoloaren testuan jasotakoaren arabera, koordinazio honako arlo hauetara hedatuko da: polizia-prozedura eta -operazioak, kriminalen sare antolatuen prebentzioa eta horien aurkako borroka, informazioa, ohiko delinkuentzia, genero-indarkeria, zirkulatzeko bideak mozteak bi autonomia-erkidegoei eragiteko aukera dagoenean, hondamendiak eta istripu handiak, polizien prestakuntza eta dokumentazio espezializatua, irakasle eta adituen eta polizia-ekimendu eta teknologia berrien trukaketa.

Dokumentuak bi erakundeen arteko komunikazio-sistema ere zehazten du. Sistema hori eskaeraren larritasunaren arabera desberdina izango da.

Hala, adibidez, ohiko delinkuentziaren edo delinkuentzia antolatuen inguruko ikerketen kasuan erakunde bat bestearekin komunikatu behar denean, kasua urgentea izan gabe, informazio-eskaerak polizia-erakunde bakoitzean horretarako zehaztutako elkarrizketaguneetara bideratuko dira. Horietako batzuk izan daitezke polizia-txosten edo polizia-aurrekarien eskaerak edo atestatu eta salaketan eskaerak.

Bestalde, abian diren operazioen edo premiazko komunikazioen kasuan, agintaritzaren eta kontrol-zentroei egokituko zaie hitz egitea. Premiazko komunikazio horien artean daude bi autonomia-erkidegoen

mugan dauden udalerrietako delitu-kasuak, beste polizia-erakundearentzat interesekoak izan daitezkeen ibilgailuak lapurtu eta berreskuratzen direneko kasuak edo bi lurraldeen arteko ohiko komunikazio-bideak moztera behartzen duten hondamendi edo istripu handiak.